



SUPER AMARA TXIKIEN GABONETAKO X. KROSA

ARAUDIA

1. ARTIKULUA

SUPER AMARA Bidasoa Atletiko Taldea eskualdeko atletismo elkarteak, Irungo Udalaren laguntzarekin, SUPER AMARA TXIKIEN GABONETAKO X. Krosa antolatu du 2025ko abenduaren 20ko, larunbat arratsalderako.

2. ARTIKULUA - PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan 1 eta 11 urte bitarteko edozein haurrek parte hartu ahal izango du. 2014 urtetik (hau barne) aurrera jaioetako haurrak. Txikienek beren gurasoek lagunduta irten ahal izango dute.

3. ARTIKULUA - INSKRIPZIOAK

Inskripzioak irailaren 17an irekiko dira eta **3€** tan apuntatu ditzakegu haurrak, horietatik euro 1 zuzenean proiektu solidarioa dijoaz. Edizio honetan MI DULCE GUERRERO asoziazioa-ri nahi dugun diru kopurua emateko aukera izango dute partaideek, DIABETESen inbestigazioari laguntza ematen dion asoziazioa da.

3.1.- INSKRIPZIOA EGITEKO ERA

Inskripzioa on-line irekiko da helbide honetan: www.kirolprobak.com irailaren 17tik aurrera. On-line inskripzioak abenduaren 19an (13:00) itxiko

Pertsonalki Bidasoa Atletiko Taldeko bulegoetan izena emateko aukera ematen dugu, Leandro Agirretxe plaza 1. znb, 2. solairua, 8. bulegoa (Palmera Montero eraikina), hurrengo ordutegian: astelehenetik ostiralera 9.00tik 14.00ra.

4. ARTIKULUA - DORTSALAK JASOTZEA

Dortsala Palmera Montero eraikinean izango dugun gela batean, Leandro Agirretxe plazan jaso ahal izango da ondorengo egun eta orduetan:

ABENDUAK 19, OSTIRALA: 18.00 -21.00

ABENDUAK 20, LARUNBATA: 10.00 -12.30

Egun horretan dortsalak jasotzen ez badira, zuzenean lasterketa egunean bertan jasoko dira, irteera gunean. Antolakuntzak abisatzen du hobe dela garaiz egitea gero ilaran egon beharrik ez izateko, lasterketak ezin dira atzeratu eta.

5. ARTIKULUA - LASTERKETEN ORDUTEGIA

Haurren lasterketak ordu hauetan egingo dira (behin behineko orudtegia, aldaketak egon daitezke izen ematearen arabera):

- 15h30 · 2023-2024ean jaiotako neska-mutilak. 100 metroko distantzia
- 15h35 · 2022an jaiotako neska-mutilak. 100 metroko distantzia
- 15h40 · 2021an jaiotako neska-mutilak. 100 metroko distantzia
- 15h45 · 2020an jaiotako neska-mutilak. 100 metroko distantzia
- 15h50 · Aurrebenjamin neska-mutilak. 2019ean jaiotakoak. 200 metroko distantzia
- 15h55 · Aurrebenjamin neska-mutilak. 2018an jaiotakoak. 200 metroko distantzia
- 16h00 · Benjamin neska-mutilak (2017). 300 metroko distantzia
- 16h05 · Benjamines neska- mutilak (2016). 300 metroko distantzia
- 16h10 · Alebin neska-mutilak (2015). 420 metroko distantzia
- 16h15 · Alebin neska-mutilak (2014). 420 metroko distantzia

Antolakuntza egokia izan dadin eta beroketa-luzaketa batzuk egin ahal izateko, haur bakoitzak tokatzen zaion aurkezpen eta berotze eremura joan beharko du lasterketarako daukan ordua baino 15 minutu lehenago. Zona bakoitza adinaren arabera banatuta egongo da eta Super Amara BAT taldeko monitoreak egongo dira berotze ariketak egiteko eta frogaren irteerara eramateko.

6. ARTIKULUA.- SARIAK.

Parte hartzaile guztientzat diploma eta poltsa opari bat izango dute. Poltsan, Super Amarako merienda oparoa eta Marrubi dendako gozokiak egongo dira.

7. ARTIKULUA - IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUAK LAGATZEA

Parte hartzaile guztiek, izena ematen duten unetik, Araudi hau onartzen dute eta baimena ematen dute Bidasoa Atletiko Taldeak, bere kasa edo hirugarren erakunderen baten bitartez, izena ematen dutenenen datu pertsonalak eta proban zehar jasotako argazkiak, bideoak eta abar informatikoki erabil ditzaten, kirola, sustapena edo alor komertziala soilik izango duen helburua lortzeko.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa, ezartzen duen bezala, parte hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea edukiko du bere edukia partzialki edo osorik zuzendu edo ezabatzeko. Eskubide hau erabiltzeko idatziz eskatu beharko du Bidasoa Atletiko Taldeak duen helbidean (Ramon Iribarren kalea, 4 behea atzealdean 20304 Irun).